



Gelede
Masks

Erakusketa / Exposición

Gelede Masks

03/03/2012 - 10/06/2012

topic.

Antolatzailea
Organizador



Tolosako Ekinbide Etxea
Centro de Iniciativas de Tolosa

Babesleak
Patrocinadores



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

EUSKADI *Gozia ezazu*

DONOSTIA 2016
SAN SEBASTIAN

EL DIARIO VASCO





Gelede maskara barraskilo batekin
(Egurra, oihala eta haria; 38cm. garai, 49cm. zabal)

Máscara Gelede con caracol
(Madera, tela e hilo; alto 38cm., ancho 49cm.)

Gelede mask with snail
(Wood, cloth and string; h. 38cm., w. 49cm.)

Aurkezpena / Presentación

2012an TOPICek antolatzen duen lehenengo erakusketa honetan, Gelede eta Efe maskarak ikusi ahal izango ditugu. Guztira 44 maskara Afrikar dira, Nigeria eta Beninen artekoak. Ursela Voorhuis izeneko emakume holandar baten bilduma pribatuaren zati direlarik. Pieza paregabe hauek bitan soilik ikusi ahal izan dira : 2008an Dordrechtoko Nazioarteko txotxongilo jaialdian eta orain hemen, Tolosan. Horregatik, oso pozik sentitzen gara Tolosako jende guztiari eta museora gerturatzen diren guztiei aukera hau eskeintzeaz, eta espero dugu erakusketa hau zuen gustoko izatea eta aldi berean interesa piztea.

Pieza hauek bi zatitan banatzen dira: alde batetik, buruaren gainean kasko moduan jartzen den maskara daukagu; eta, bestetik, honen gainean, txotxongilo edo panpin artikulatuak azaltzen dira, eszena ezberdinak irudikatuz: eszena satirikoak, erligiosoak, tradizionalak edo garaikideagoak, medenbaldeko kutsuarekin, eguneroko gaiak eta abar.

Erakusketa hau aurrera atera ahal izan da Damiet Van Dalsum txotxongilolari holandarrak egindako lanari esker, lerro batzuk gorago aipatutako jaialdi holandarraren zuzendari ohia eta TOPICeko lagun maitea. Izan ere, Txotxongilo Etxe honek badauka museoan Damiet-en txotxongilo bat, "Makina hegalaria" Printze txikia idazlanekoa, txotxongilo ezberdina da, Damiet-ek egiten dituen bezelakoa: iradokitzailea da, bere sorkuntzan originalagatik, eta pieza garrantzitsu bat Europako txotxongilo garaikide munduan.

Erakusketa honen diseinua Damiet berak egin du Elise Wagemanekin batera, eta TOPICetik eskerrak eman nahi dizkiegu biei, eta, noski, Ursela Voorhuisi ere bai, egindako lan guztiarengatik eta bere eskuzabaltasunagatik erakusketa hau gerta dadin.

La primera exposición temporal que organiza el TOPIC este 2012 está dedicada a las máscaras Gelede y a las máscaras Efe. Son un total de 44 máscaras africanas de entre Nigeria y Benin, y forman parte de una colección particular holandesa que pertenece a Ursela Voorhuis. Se trata de piezas únicas que tan sólo han sido expuestas en dos ocasiones: durante el Festival Internacional de Títeres de Dordrecht en 2008 y ahora aquí, en Tolosa. Por ello, nos sentimos muy orgullosos de poder ofrecer a todos los tolosarras y a todos cuanto visiten el museo esta oportunidad, que esperamos les guste y despierte su interés.

Las piezas constan de una máscara que se coloca sobre la cabeza a modo de casco, y, sobre ella, se representan diferentes escenas con títeres o muñecos articulados: escenas satíricas, religiosas, más o menos contemporáneas, de influencia occidental, del día a día, etc.

Esta exposición ha sido posible gracias al trabajo de la titiritera holandesa Damiet Van Dalsum, antigua directora del festival holandés antes mencionado y gran amiga del TOPIC. De hecho, esta Casa de los Títeres ya cuenta en su museo con una de las marionetas de Damiet, la "Máquina Voladora" de la obra El Principito, un títere diferente a los demás, igual que todos los suyos: muy sugerentes, originales en su creación e importantes exponentes del títere contemporáneo europeo.

El diseño de esta exposición ha corrido a cargo de la propia Damiet y de Elise Wagemans, y desde el TOPIC les estamos muy agradecidos a ellas y, por supuesto, a Ursela Voorhuis, por todo su trabajo y su generosidad al hacer esta exposición posible.

María San Sebastián Poch

Sarrera

Sorginen emakume-botereak erregulatzea da Gelede gizartearen funtzioa, komunitatea botere horiek izan ditzaketen eragin kaltegarrietatik babesteko.

Komunitatean eragina izan dezaketen botereak ugariak dira: arbasoena, jainkoena, sorginena... baina sorginen emakume-boterea da denetan indartsuena. Yorubatarrek diote “sorgin batek bakarrik babes zaitzakeela sorginengandik”; jainkoek ere ez diete itzalik egiten.

Hain zuzen, “sorgin” hitza aje terminoaren eratorri peioratiboa da eta testu honetarako aukeratu dugu soilik hitz ezagunago bat erabiltzearren. Hitzak emakume-boterea adierazten du eta botere hori oso garrantzitsua da komunitatearentzat, emankortasunaren eta bizi-indarraren jatorrian baitago. Hasiera batean emakume orok dauka botere hori (eta beraz, emakume guztiak sorginak lirateke). Zentzu horretan, Yorubatarrek uste dute komunitatearen ongizatea zaintzen duten izaki femenino guztiak aje direla hasiera batean eta horregatik “Ama” deitzen diete. Hala eta guztiz ere, zerbaitek edo norbaitek sorgin horien haserrea pizten badu guztiz itxuraldatzen dira, odol egarria duten txori forma hartzen dute edo jendearen bizi-indarra osten duten gaueko izaki isil bihurtzen dira.

Efe/Gelede gizarteak sorginak ohoratzen ditu, horrela komunitatea haien eragin kaltegarrietatik babesteko. Talde honetan gizonezkoak eta emakumezkoak biltzen dira. Baina emakumeak dira gainerakoak zuzentzen dituztenak; gizonek berriz lan praktikoagoak egiten

dituzte, hala nola kantua eta dantza. Hala, aldizkako ospakizunak antolatzen dituzte Amen ohoretan.

Ospakizun horiek bi zati dituzte. Lehenengoa “Efe” izeneko gaueko bilera bat da eta maskara nagusiak bertan egiten duen emanalditik datorkio izena. Oro Efe maskararen emanaldi horretan antzezlearen kantua da garrantzitsuena, eta ez maskarada bera. Nagusiki jainkoei otoitz egiteko kantu tradizionalak izaten dira eta jainkoen gainetik Amak ohoratzeko. Horiez gain kantu satirikoak ere abesten dituzte, bereziki uanean unerako konposatuak. Horiexek baliatzen dituzte abusuak edo norbanako ustelduak salatzeko, sarritan oso termino kaustikoak erabiliz. Efe-k kantatzen dituen testuak koruak errepikatzen ditu edo batzuetan entzuleek ere bai.

Efe-ren ostean gutxienez beste maskara bat etortzen da, sarritan gehiago ere bai, baina ondorengo emanaldien artean azkenak bakarrik kantatzen du eta ez beti (Tetede maskarak Ketu eskualdean eta Ajakuena maskarak Ikaro hirian, Egbado eskualdean). Efe-ren emanaldia baino lehen maskara aski ezagun batek parte hartzen du ospakizunean: Ama Handiaren edo Txori-begi sorginduaren maskarak. Anago, Ketu eta Egbado iparraldean, Hienaren maskara sartzean amaitzen da Efe-ren emanaldia. Maskara horrek trikimakoen gainean egiten du dantza eta arreta desbideratzen du Efe-rengandik, ahal den neurrian inor konturatu gabe erretiratu dadin.

Gelede izeneko maskarak hurrengo arratsaldean agertzen dira. Ez dute kantatzen baina dantza sekuentzia

Introducción

La función de la sociedad Gelede es la de regular los poderes femeniles de las brujas para proteger a la comunidad de sus peligrosas influencias.

Entre los diversos poderes a los que está expuesta la comunidad (el poder de los ancestros, deidades y brujas), el poder femenino de las brujas es el más fuerte. Los Yoruba dicen que “solo una bruja puede protegerte de las brujas”; ni siquiera las deidades pueden hacerles sombra.

De hecho, la palabra “bruja” es una derivación innecesariamente peyorativa de la palabra aje, la cual utilizamos aquí, sólo con la intención de emplear una palabra menos malsonante. La palabra habla del poder femenino, el cual es de vital importancia para la comunidad ya que es causa de fertilidad y fuerza vital. En principio, es inherente a toda mujer (las cuales son, por tanto, todas brujas). En este sentido, los Yoruba en un principio siempre consideran a las aje seres femeninos que velan por el bienestar de la comunidad y, como tal, se refieren a ellas como “Madre”. Sin embargo, si algo o alguien despierta la ira de estas brujas, se transforman en seres sedientos de sangre que se aparecen en forma de pájaros o silenciosas criaturas nocturnas para capturar la fuerza vital de la gente.

El objetivo de la sociedad Efe/Gelede es propiciar a las brujas y, así, proteger a la comunidad de su negativa influencia. La sociedad incluye miembros masculinos y femeninos. Pero son las mujeres las que dirigen la sociedad, mientras que los hombres tienden a tener

tareas más prácticas como el canto y la danza. La sociedad organiza celebraciones periódicas en honor a las Madres.

Estas celebraciones tienen dos partes. La primera consiste en una reunión nocturna conocida como “Efe”, después de la actuación in situ de la máscara principal. Cuando esta máscara Oro Efe actúa, no pone énfasis tanto en la mascarada como en las canciones que el portador de la máscara canta. Estas son, sobre todo, canciones tradicionales de oración a las deidades y, por encima de ellas, a las Madres, además de canciones satíricas compuestas específicamente, para la ocasión, en las que se aprovecha para denunciar abusos locales e individuos corruptos, a menudo en términos muy caústicos. Efe canta los textos, que son repetidos por un coro o, a veces, por la audiencia.

A Efe le sigue, habitualmente, como mínimo otra máscara, de entre las cuales solo la última canta canciones a veces (la máscara Tetede en Ketu y la máscara Ajakuena en Ikaro, Egbado). Una máscara bien conocida que suele preceder a la actuación de Efe es la máscara de la Gran Madre o la del Ojo de pájaro embrujado. En Anago, Ketu y norte de Egbado, la actuación de Efe termina con la llegada de la máscara de la Hiena. Esta máscara baila sobre zancos y distrae la atención de Efe, quien puede luego retirarse de forma más o menos desapercibida.

Las actuales máscaras Gelede aparecen a la tarde siguiente. No cantan, pero realizan breves y vigorosas

labur eta indartsuak egiten dituzte danbor soinuak lagunduta, ikusle adituen begirada kritikopean. Kasu batzuetan maskarek gizon edo emakume baten aurpegia soilik irudikatzen dute baina normalean giza figuren errepresentazio konplexuak izaten dira, soinean zapiak, animaliak edo lanabesak dituztela. Maskara dantzarien kopurua batzuetan ikaragarria izaten da eta lantzen diren gaiek ia ez dute mugarik.

Gelede txotxongiloak literaturan

Katalogo eta erakusketa honetan ikusgai dauden Efe/Gelede maskara gehienek txotxongilo bat edo gehiago izaten dituzte, dantzariarekin batera mugitzen direnak batzuk, harien bidez independenteki manipulatu daitezkeenak besteak. Literatura aztertuta, Gelede maskaren gainean txotxongiloak izatea nahiko fenomeno arrunta dela dirudi, nahiz eta txotxongiloak ez diren inon deskribatzen. Olenka Darkowska-Nidzgorski eta Denis Nidzgorski adituen azterlan bateko zenbait ilustraziotan txotxongilodun Gelede maskarak ikus daitezke baina azterlan horrek ez ditu Yorubatarren testuinguruan kokatzen. Henry eta Margaret Drewal adituek diote txotxongilodun Gelede maskarak Ketu, Ogori eta Anago eskualdeetako Yorubatarren artean aurkitzen direla gehienbat, gaur egungo Benin estatuan. Drewal-darrek jasotako ilustrazio bakarrean Ogori eskualdeko maskara bat ageri da, zerra gora eta behera mugitzen duen arotz batekin. Maskara horri dagokionean, Henry Drewal-ek dio txotxongiloek batzuetan “ekitaldian” parte hartzen dutela maskarak agertu baino lehen eta zenbaitetan maskaradan guztiz integratuta daudela.

Bildumaren jatorriak

Aurreko jabearen informazioa egiaztatu ezinezkoa den arren, haren esanetan katalogo eta erakusketa honetako

Efe/Gelede pieza guztiak hiri edo herri berean erosi zituen baina tamalez, ez dugu izena ezagutzen. Diotenez bilduma Europar dabil 1972az geroztik.

Argitalpen honen helburua ez da Efe/Gelede fenomeno osoa dokumentatzea, baizik eta txotxongilodun maskaren adibide batzuk erakustea, gutxitan ikusten baita halakorik. Bilduman halaber txotxongilorik gabeko hainbat maskara daude, nagusiki gaueko ospakizunekoak (Efe). Horiek ere erakusketan sartu ditugu, jaialdiaren ildo orokorra jarraitzeko eta gaueko maskara horietako batzuk benetan ezohikoak direlako ere bai. Aitzitik, bilduman ia ez dago jaialdiaren Gelede zatiko txotxongilorik gabeko maskararik, ongi dokumentatuta dauden arren.

Estiloa aztertuta esan genezake maskara gehienak Anago erlijioeko Yorubatarrenak direla, hots Benin hego-ekialdeko kostan eta Nigeria hego-ekialdean bizi direnenak. Anago sinestunei Nago deitzen zaie Beninen. Maskarak zalantzarik gabe tailer desberdinetan eginak dira, batzuk Fon etniako tailugileek eginak. Maskaretan behin edo behin agertzen diren hitzak eta apaingarri batzuen itxurak Fon tribuaren eragina izan zutela erakusten dute eta nolana ere, bilduma Beninetik datorrela azpimarratzen dute. Ziurrenik Porto Novo eta Sakete ingurukoak dira jatorriz, Daagbe, Takon eta Banigbe herriak eta ziurrenik iparralderago dagoen Pobe herria ere barne hartuz.

Erakusketan ikus litekeen bezala, azpiegitura (burua) behin baino gehiagotan berrerabili da, gainerako eszena titiriteroa ordezkatzuz. Estilo desberdinetako txotxongiloek ere badute azalpena: neurri handi batean artistaren trebezia eta sormenaren ondorio dira. Tokian tokiko estiloen eragina ere berriz azpiegituran (buruan) antzematen da.



Gelede maskara loro etxekotuarekin
(Egurra, oihala eta haria; 41cm. garai)

Máscara Gelede con un loro domesticado
(Madera, tela e hilo; alto 41cm.)

Gelede mask with tame parrot
(Wood, cloth and string; h. 41cm.)



Gelede maskara hileta eszena batekin
(Egurra, oihala, haría eta rafía; 47cm. garai)

Máscara Gelede con probable escena de funeral
(Madera, tela, hilo y rafía; alto 47cm.)

Gelede mask with funeral scene
(Wood, cloth, string and raffia; h. 47cm.)



**Gelede maskara bi gizonekin
beste bati burua mozten**
(*Egurra eta haria; 40.5 cm garai*)

**Máscara Gelede con escena de
decapitación**
(*Madera e hilo; alto 40.5 cm.*)

**Gelede mask with decapitation
scene**
(*Wood and string; h. 40.5cm.*)

secuencias de danza apoyadas por tambores, bajo la crítica mirada de una audiencia entendida. En algunos casos las máscaras tan solo representan la cabeza de un hombre o una mujer, pero, normalmente, se trata de complicadas representaciones de figuras humanas con pañuelos, animales y utensilios encima. El número de máscaras que danzan es, a veces, inmenso, y la variedad de temas tratados e, prácticamente, ilimitada.

Marionetas Gelede en la literatura

La colección de máscaras Efe/Gelede que aparecen en este catálogo y exposición, portan, la gran mayoría, una o más marionetas encima, que pueden moverse al unísono con el bailarín o pueden manipularse independientemente con la ayuda de hilos. En la literatura, la presencia de marionetas encima de las máscaras Gelede parece un fenómeno bastante común, si bien las marionetas en sí no están descritas en ningún lado. Existen algunas ilustraciones de máscaras Gelede con marionetas en un estudio de Olenka Darkowska-Nidzgorski y Denis Nidzgorski, pero este estudio no las sitúa en un contexto Yoruba. Henry y Margaret Drewal apuntan que las máscaras Gelede con marionetas se encuentran entre los Yoruba Ketu, Olori y Anago, fundamentalmente, el actual estado de Benin. La única ilustración que los Drewal aportan es una máscara de Olori en la que aparece un carpintero moviendo arriba y abajo su serrucho. A propósito de esta máscara, Henry Drewal cuenta que las marionetas a veces aparecen en “acto” separado antes de que aparezcan las máscaras, y que, en otras ocasiones, están totalmente integradas en la mascarada.

Orígenes de la colección

Según la inverificable información aportada por el dueño anterior, todas las piezas Efe/Gelede expuestas

y que aparecen en este catálogo fueron adquiridos en la misma ciudad o pueblo, cuyo nombre, sin embargo, no se conoce. Se dice que la colección lleva en Europa desde 1972.

El objetivo de esta publicación no es documentar el fenómeno Efe/Gelede completo, sino mostrar algunos ejemplos de máscaras con marionetas, de las que el público raramente puede disfrutar. La colección también incluye algunas máscaras sin marionetas, fundamentalmente de la parte nocturna del festival (Efe). Estas también se han incluido de forma que pueda seguirse la línea general del festival, y también porque algunas de estas máscaras nocturnas son muy inusuales. La colección, en cambio, apenas incluye ejemplos de las tan bien documentadas máscaras sin marionetas de la parte Gelede del festival.

A juzgar por su estilo, la mayoría de estas máscaras tienen su origen entre los Anago Yoruba, que viven a lo largo de la larga línea de costa en el sudeste de Benin y sudoeste de Nigeria. Los Anago son conocidos en Benin como Nago. Las máscaras fueron hechas sin duda en diferentes talleres y algunas por tallistas Fon. Las palabras que aparecen de vez en cuando en las máscaras y la naturaleza de algunos de sus motivos sugieren una influencia Fon, que, en todo caso, no hacen sino subrayar que la colección viene de Benin. Probablemente, son originarias del área de Porto Novo y Sakete, incluyendo los pueblos de Daagbe, Takon y Banigbe, y, posiblemente, de más al norte, hasta Pobe.

Como se puede ver en la exposición, la subestructura (cabeza) se ha reutilizado a menudo reemplazando la escena titiritera de encima. Las diferencias en el estilo de las marionetas son debidas en buena medida a la habilidad e inventiva individual del artista más a estilos locales, que, sin embargo, pueden apreciarse en la subestructura (cabeza).

Nola erabiltzen dira txotxongiloak Efe/Gelede zeremonietan

Txotxongiloak ia beti Gelede aurpegi klasikoak duen egitura baten gainean ipintzen dira. Horrek zehazten du Efe/Gelede testuinguruan duen funtzioa. Drewal-darrek (arestian aipatutako adituek) baieztatzen dute txotxongilodun maskarak zeremonien Efe nahiz Gelede ataletan erabiltzen zirela eta edonolako eszenetan jardun zezaketela, nola komikoetan hala serioetan. Txotxongiloei ero deitzen zaie, hau da, “makina magikoak”. Egurrezko tailuak dantzariei mugikortasun gutxi uzten dienez, txotxongiloak apartak dira eszena satirikoak antzezteko. Horrelakoak Gelede zeremonian egiten zirela dirudi Efe atalean baino gehiago. Gelede zeremonian dantza eta entretenimendua dira nagusi eta gainera egunez izaten dira, beraz txotxongiloak (nahiko txikiak izaki) hobeto ikus daitezke. Hala eta guztiz ere, Gelede maskara guztiak ez dira entretenimendurako erabiltzen. Esate baterako, maskara zurien gainean egindako txori sorgindu beldurgarriak ere badaude; horien itxurak eta koloreak gaueko Efe zeremonia gogorarazten du eta Yemoja izugarria ere bai, Ama guztien burua eta Efe/Gelede guztien “jabea”.

Badakigu txotxongilodun maskarak Efe zeremonia hasi baino lehen ere jarduten dutela batzuetan. Badirudi maskara gehienbat haurrak entretenitzeko erabiltzen dela. Egia esan, zeremonia horretan Oro Efe maskaraz gain beste batzuk ere parte hartzen duten arren, Efe-ren erritozko koreografia nahiko finkatuta dago eta aukera gutxi uzten dizkie antzeppen titiriteroei. Gainera, txotxongiloak distrakzio onartezina lirateke Efe-ren emanaldian eta haren aurreko edozeinetan ere.

Beraz, txotxongilo gehienak eguneko Gelede dantza zeremonian agertzen dira.

Hariz manipulaturako txotxongilodun maskarek ziurrenik ez zuten parte hartuko Gelede dantza sekuentzia labur eta indartsuetan, dantzari eta danbor-joleen arteko

elkarreraginak oso zehatza izan behar du eta. Jendeak danbor ugariren erritmoari jarraitzen dio dantzatzeko, horietako bat tonu altu edo baxuagoan afinatu daitekeelarik. Horrek melodia antzeko bat edo testu (eka) bat ere sortu dezake, hain zuzen Yoruba hizkuntza tonala baita. Gelede dantza beraz, oso nekagarria izateaz gainera, erabateko kontzentrazioa eskatzen duen koreografia da. Ketu eskualdeko Gelede tradizioan (Anago sinestunen eremuan ere ikus daiteke) dantzariak maskara berdina daraman beste dantzari batekin elkartu behar izaten ditu sarritan bere pausuak, biek berdina dantzatzen dutelarik. Gainera, urratsek egiten duten zarataren ondorioz akatsik txikiena ere ikusten eta entzuten du audientzia kritikoak. Horregatik, dantza sekuentzia bakoitzak minutu gutxi batzuk baino ez ditu irauten.

Hainbesteko kontzentrazioarekin jardun behar duten dantzariak seguru asko ez lirateke gai izango txotxongiloak beren eskuekin manipulatzeko eta gainera dantzak berak itzal egingo lioke txotxongiloen mugimenduari. Jakina, hori ezin zaie aplikatu hari bidez manipulatu ez diren txotxongiloei, besteak beste txorien figurei. Hegaztien hegala enborrari lotzen zaizkion oihal zatiak izaten dira eta gora-behera mugitzen dira dantzak dirauen bitartean.

Laburbilduz, badirudi hari bidez manipulaturako txotxongilodun maskarak eszena nagusien arteko tarteetan bakarrik agertzen direla, hots, maskara guztiek dantza egiten dutenean eta ez dutela parte hartzen danbor musikarekin lotutako eka dantza berezietan.

Erakusketa honetan ez daude guztiz berdinak diren bi maskara. Maskara berdinek egiten dituzten dantzak (esaterako Ketu eta Anago eremuetako Gelede zeremonietan) oso ezohikoak dira txotxongilodun Gelede maskaren kasuan. Hala eta guztiz ere, baliteke maskarek binaka dantza egitea txotxongilo antzeppenetan, eka indartsuak ez direnean. Horrela



Gelede maskara gizon batekin danborra jotzen
(Egurra eta haria; 40cm. garai)

Máscara Gelede con un hombre tocando el tambor
(Madera e hilo; alto 40cm.)

Gelede mask with man playing a drum
(Wood and string; h. 40cm.)



Gelede maskara tximu batekin eserita
(Egurra, oihala eta haria; 41.5cm. garai)

Máscara Gelede con un mono sentado
(Madera, tela e hilo; alto 41.5cm.)

Gelede mask with seated monkey
(Wood, cloth and string; h. 41.5cm.)



Máscara Gelede con un mono y un prisionero
(Madera, tela e hilo; alto 43cm.)

Gelede maskara tximu eta atxilotu batekin
(Egurra, oihala eta haria; 43cm. garai)

Gelede mask with a monkey and a prisoner
(Wood, cloth and string; h. 43cm.)



Gelede maskara tximu batekin
(Egurra, oihala, feltro eta haria; 48cm. garai)

Máscara Gelede con mono
(Madera, tela, fieltro e hilo; alto 48cm.)

Gelede mask with monkey
(Wood, cloth, felt and string; h. 48cm.)

Cómo se utilizan las marionetas en las ceremonias Efe/Gelede

Las marionetas van casi siempre montadas sobre una estructura que tiene la clásica cara Gelede. Esta sitúa sin margen de error su actuación en un contexto Efe/Gelede. De hecho, los Drewals (estudiosos mencionados antes) afirman que las máscaras con marionetas se utilizan tanto en las ceremonias Efe como en su parte Gelede y que muestran cualquier tipo de escena, cómica y seria. A las marionetas se les llama ero, que significa “máquina mágica”. Con la poca movilidad que les permite su talla de madera, las marionetas son ideales para representar escenas satíricas, que más parecen ser parte de la ceremonia Gelede que de la Efe; la ceremonia Gelede se centra en la danza y en el entretenimiento, y además, tiene lugar durante el día, de forma que las marionetas (que son bastante pequeñas) pueden verse más fácilmente. Sin embargo, no todas las máscaras Gelede se utilizan para entretener. Por ejemplo, también se encuentran terroríficos pájaros embrujados sobre máscaras blancas, cuya apariencia y color recuerdan a la ceremonia nocturna Efe o a la terrorífica Yemoja quien, como cabeza de todas las Madres, es la “dueña” de Efe/Gelede.

Es seguro es que las máscaras con marionetas a veces también actúan antes de que la ceremonia Efe empiece. Parece que la máscara se utiliza fundamentalmente para entretener a los niños. Ciertamente, aunque en esta ceremonia tomen parte otras máscaras aparte de la máscara Oro Efe, la coreografía del ritual Efe está bastante fijada, dejando pocas oportunidades a representaciones titiriteras. Además, las marionetas supondrían una distracción intolerable respecto a la representación Efe y a cualquier otra que la precede.

Por tanto, casi todas las marionetas aparecerán durante la ceremonia dancística diurna Gelede.

Se duda acerca de que las máscaras con marionetas

manipuladas por hilos tomen parte en las breves y vigorosas secuencias de danza Gelede, puesto que éstas requieren una interacción extremadamente precisa entre bailarines y tambores. La gente baila al ritmo de varios tambores, uno de los cuales puede afinarse en un tono inferior o superior. Esto genera una especie de melodía o, incluso, texto (eka), ya que, de hecho, el Yoruba es un lenguaje tonal. La danza Gelede, por tanto, no es sólo extremadamente cansada, sino que también requiere una total concentración. En la tradición Gelede de Ketu, que también se observa en Anago, el bailarín debe unir su danza a menudo a la de otro compañero que lleve la misma máscara y realizan los mismos pasos. Además, el ruido que sacan las pisadas asegura que el mínimo error puede no solo ser visto, sino también oído por la extremadamente crítica audiencia. Por ello, también, cada secuencia de danza no dura más allá de unos pocos minutos.

Bailarines que tienen que actuar con tanta concentración serían, probablemente, incapaces de manipular las marionetas con sus manos, y el movimiento de las marionetas se vería eclipsado por el de la propia danza. Por supuesto, esto no es aplicable a marionetas que no se manipulan con hilos, como por ejemplo las figuras de pájaros, cuyas alas se atan al tronco con trozos de tela que se mueven arriba y abajo durante la danza.

En resumen, parece que las máscaras con marionetas manipuladas por hilos aparecen sólo entre medio de las principales escenas, cuando todas las máscaras danzan, y que no toman parte en las danzas especiales eka ligadas a la música de tambores.

No hay máscaras completamente idénticas en esta exposición. Las danzas en las que intervienen máscaras idénticas, como ocurre en las ceremonias Gelede en Ketu y también en Anago, son muy inusuales en el caso de máscaras con marionetas Gelede. Sin embargo, es

azaltzen da bilduma honetan bikoteak aurkitzea. Era berean, baliteke itxuraz guztiz desberdinak izan arren kontzeptualki harremana duten bi maskarak bikote bat osatzea (dela osagarriak direlako, dela elkarren aurkakoak direlako).

Nola eraikitzen dira Gelede txotxongiloak

Txotxongiloek zati ugari dituzte eta iltzeak, oihala zatiak, lokarriak eta goma zatiak erabiliz lotzen dira, mugikortasuna izan dezaten. Txotxongiloak dantzarekin batera mugitu daitezke edo dantzariak berak hariekin manipulaturik bestela.

Hariak batzuetan plastikozko hodian barnean egoten dira, errazago finkatzeko eta aurrerantz nahiz atzerantz leunago mugitzeko. Hodiak “efektu bereziak” lortzeko ere erabili daitezke: adibidez, kea edo ura botatzeko. Oihala sarritan mekanismoa ezkutatzen erabiltzen da eta giza figuren kasuan enborra iradokitzen.

Txotxongiloak oro har Gelede maskaren gainaldeko egurrezko ohol batean finkatuta egoten dira. Horrek abantaila bat du: garrantzia galdu duten eszenak beste batzuekin ordezkatu daitezke maskara osoa aldatu beharrik gabe. Gainaldeko egitura horietako bat berri batekin ordezkatzeko denetan sarri zulo berriak egin behar izaten zaizkio maskarari hariak pasatzeko. Hala, hemen ikusgai dauden maskara askotan dagoeneko erabiltzen ez diren zulo zaharrak ikus daitezke.

Gelede maskaren gainaldeko egitura ez da aldatzen txotxongilo artikulatuak dauzkanean bakarrik. Drevwal aditu bikoteak beste kasu bat dokumentatu du, non egituraren koloreaz eta zenbait ezaugarriaz gain gai osoa aldatu baitzuten jabearen argibideei jarraiki.

Badago txotxongilodun maskarak eguneratzeko beste modu bat: txotxongilo zaharrei esanahi berria ematea, ordezkatu beharrean. Adibidez, pieza batean bi gizon

ageri dira bata bestearen parean eserita elkarri eskua emanez (edo belarritik tiraz). Badirudi 1983an Benineko Kerekou presidentek eta Libiako Gadafi koronelak izan zuten bilera irudikatzen duela. Hala eta guztiz ere pieza hori 1972koa da, horrek esan nahi du behin eta berriro eguneratu daitezkeen eszena estandarrak daudela. Era berean, osasun eta botere sinboloak oso modu probokatzailan eguneratu eta birziklatu daitezke.

Egurrez eta oihalez egindako txotxongilo artikulatuzko super-egitura bat eraikitzen argi dago bestelako hurbilketa bat behar dela, maskararen alderdi klasikoak lantzea ahaztuz. Sormen eta trebezia handiak behar dira nabarmenegi geratu gabe hariak nondik pasa behar duten eta nola manipulatu daitezkeen erabakitzen. Txotxongiloak gehienbat antzezteko eta efektista izateko diseinatzen dira, helburu estetikoak bigarren mailakoa da. Beraz, ondorioztatu liteke ez dituztela eskultore tradizionalak egiten, beste pertsona batzuk baizik.

Txotxongiloekin antzeztzen

Txotxongiloekin egindako eszena askok ziurrenik testu errezitatuak edo kantuak beharko zituzten ulertzeko. Testu horiek existitu baziren, hemen ikusgai dauden maskaren kasuan behintzat ez dugu bat ere aurkitu. Horixe da maskarekin antzezteko garaian topatzen den zailtasun ugarietako beste bat. Eta kasu zehatzak aztertzen jarritz gero, askoz ere galdera eta arazo gehiago sortzen dira. Gelede maskarek sarritan tokian tokiko gertakariak eta abusuak kontatzen zituzten. Urte asko igaro ondoren, ia ezinezkoa da jatorrian gaitzat hartu zituzten tokiko gertakariak identifikatzea.

Txotxongiloak hiletetan

Literaturan tarteka iradokitzen da txotxongiloak ez zirela benetan Efe/Gelede zeremonietarako sortu, Gelede gizarteko kide garrantzitsuen hiletetarako baizik.



Gelede maskara seguraski ezkontza eszena batekin
(Egurra, oihala eta haria; 39cm. garai, 32cm. zabal)

Máscara Gelede con probable escena de matrimonio
(Madera, tela e hilo; alto 39 cm., ancho 32cm.)

Gelede mask with probably a wedding scene
(Wood, cloth and string; h. 39cm., w. 32cm.)



Gelede maskara ebanista batekin
(Egurra, oihala eta haria; 32cm. garai)

Máscara Gelede con un tallista de madera
(Madera, tela e hilo; alto 32cm.)

Gelede mask with woodcarver
(Wood, cloth and string; h. 32cm.)



Gelede maskara emakume batekin saski batekin buruaren gainean
(Egurra, oihala, haria eta bambu; 42cm. garai)

Máscara Gelede con una mujer con un cesto en la cabeza
(Madera, tela, hilo y bambú; alto 42cm.)

Gelede mask with a woman with a basket on her head
(Wood, cloth, string and bamboo; h. 42cm.)

probable que pares de máscaras dancen juntas durante representaciones de marionetas cuando no se trate de las vigorosas eka. Esto explicaría por qué esta colección incluye algún par. También es concebible que mascararas de apariencia totalmente diferente pero vinculadas conceptualmente (bien porque se complementan, bien porque una es la contraria de la otra) se considere que forman una pareja.

Cómo se construyen las marionetas Gelede

Las marionetas están hechas de varias partes separadas y unidas mediante clavos, piezas de tela, cordón y tiras de goma para que pueda moverse. Las marionetas se mueven bien al compás de los movimientos de la danza, bien cuando los hilos son manipulados por el bailarín.

Los hilos, a veces, van por dentro de tubos de plástico, de forma que pueden ser fijados más fácilmente y pueden moverse adelante y atrás más suavemente. Los tubos pueden también utilizarse para lograr “efectos especiales”: por ejemplo, se puede expulsar humo o agua a través de ellos. La tela a menudo se utiliza para para ocultar el mecanismo y, en el caso de figuras humanas, para sugerir el tronco.

Las marionetas están, normalmente, fijadas a una tabla de madera atada a la parte de arriba de la máscara Gelede. La ventaja de esto es que escenas que han perdido su importancia pueden ser remplazadas por otras nuevas sin necesidad de tener que remplazar toda la máscara. Cuando una de estas estructuras de arriba se remplaza por otra nueva, a menudo hay que realizar nuevos agujeros en la máscara para que puedan pasar los hilos. Así, en muchas de las máscaras aquí expuestas pueden observarse antiguos agujeros que ya no se utilizan.

De hecho, la estructura de arriba de las máscaras Gelede

no sólo se remplaza si consta de marionetas articuladas. El matrimonio de estudiosos Drewal ha documentado un caso en el que no sólo el color y algunos atributos de la estructura fueron alterados, sino el tema completo, probablemente, siguiendo las instrucciones del dueño.

Hay otra manera para actualizar las máscaras con marionetas: dotando a marionetas antiguas de un nuevo significado, más que remplazándolas. Un buen ejemplo es el de los dos hombres sentados uno enfrente del otro dándose la mano (o agarrándose las orejas). Parece que quiere significar la reunión entre el presidente de Benin, Kerekou, y el Coronel Gadafi de Libia en 1983. Sin embargo, esta pieza data de 1972, lo que significa que hay determinadas escenas estándar que pueden actualizarse una y otra vez. De la misma forma, hay símbolos de salud y poder que son actualizados y reciclados de forma muy provocativa.

Crear una superestructura de marionetas articuladas hechas de madera y tela requiere, claramente, una aproximación al arte de tallar diferente al tallar la cara más o menos clásica de la máscara. Se necesitan gran inventiva y destreza para decidir por dónde pasar y cómo manipular los hilos sin que resulte demasiado evidente. Las marionetas son diseñadas, en primer lugar, para actuar y resultar efectistas, y, solo en segundo lugar, con un propósito estético. Por tanto, puede deducirse que suelen estar hechas por otras personas que no son los escultores tradicionales.

Interpretando las marionetas

Muchas de las escenas con marionetas, posiblemente, necesitaron un texto recitado o cantado para poder comprenderse. Si estos textos existieron, en el caso de las máscaras aquí expuestas ninguno ha sobrevivido. Esta es otra de las muchas dificultades que se encuentran cuando se trata de interpretar las máscaras.

Robert Thompson adituak deskribatzen du Ajilete hirian egindako Gelede hileta batean txotxongiloak erabiltzen zituztela. Eszenatoki inprobisatu bat eraikitzen zen merkatu plazan, esterillekin dekoratuta. Eszenatoki erdian bi txotxongilo agertzen ziren larrua jotzen eta txiza egiten, ikusleen gozamenerako. Antzezpen horrek guztiz desagokia dirudi baina bizitzak aurrera darrai eta hileta bat besteak beste senitarteko ospakizun handi bat da. Gogoan izan behar dugu halaber guztia ikusten eta entretenitzen ari diren sorginek ematen digutela belaunaldi berrien jaiotza bermatzen duen emankortasuna eta bizi-indarra eta horrekin engainatzen dute heriotza. Baliteke erakusketa honetan ageri diren txotxongilodun maskara batzuk hiletetarako edo hileta ospakizunetarako eginak izatea. Lurperatze eszenak irudikatzen dituzten piezak agian testuinguru horrekin ulertu behar lirateke.



Gelede maskara tximu aurpegiarekin eta goran bi gizon armadunak, leoi bat eta bi suge
(Egurra; 35cm. garai)

Máscara Gelede que representa a un mono con dos hombres armados, un león y dos serpientes
(Madera; alto 35cm.)

Gelede mask representing a monkey, two men with weapons, a lion and two snakes
(Wood; h. 35cm.)

Y surgen muchas más preguntas y problemas cuando se trata de analizar casos concretos. Las máscaras Gelede a menudo comentan todo tipo de sucesos o abusos locales. Años después, resulta imposible identificar los eventos locales a los que se referían originalmente.

Marionetas en funerales

En la literatura se sugiere, ocasionalmente, que las marionetas no fueron creadas para las actuales ceremonias Efe/Gelede, sino para los funerales de los miembros importantes de la sociedad Gelede. El estudioso Robert Thompson describe cómo se utilizaban marionetas en un funeral Gelede en Ajilete. Se construía un escenario improvisado, decorado con esterillas en la plaza del mercado. Aparecían dos marionetas en medio del escenario que copulaban y orinaban para deleite de la audiencia. Semejante actuación podría parecer inapropiada, pero la vida continúa y un funeral es, entre otras cosas, una gran celebración familiar. También debemos recordar que las brujas, que lo están observando y entreteniéndose, procuran la fertilidad y fuerza vital que asegura el nacimiento de nuevas generaciones, y así engañan a la muerte. Algunas de las máscaras con marionetas que se presentan en esta exposición puede que fuesen realizadas para funerales o conmemoraciones de funerales. Las piezas que representan escenas de enterramiento quizás deberían entenderse en este contexto.



Gelede maskara pertsona batekin eserita nagusitasun simbolo bezala
(Egurra, oihala eta haria; 53.5cm. garai)

Máscara Gelede con figura sentada como símbolo de autoridad
(Madera, tela e hilo; alto 53.5 cm.)

Gelede mask with seated figure as symbol of authority
(Wood, cloth and string; h. 53.5cm.)



Gelede maskara gizon batekin lastozko ohe batean etzanda
(Egurra, oihala, haria eta lastoa; 35.5cm. garai)

Máscara Gelede con un hombre tumbado en una cama de paja
(Madera, tela, hilo y paja; alto 35.5cm.)

Gelede mask with man lying on strawbed
(Wood, cloth, string and straw; h. 35.5cm.)



Gelede maskara tximu batekin eta irudi txiki batekin egurrezko ontzi batean sartuta harri batekin
(Egurra, oihala, haria, lumak eta alambrea; 43cm. garai, 41cm. zabal)

Máscara Gelede con un mono y una figura en una tinaja de madera con una piedra
(Madera, tela, hilo, plumas y alambre; alto 43cm., ancho 41 cm.)

Gelede mask with a monkey and a figure in a wooden pot with a Stone
(Wood, cloth, string, feathers and wire; h. 43cm., w. 41cm.)



Gelede maskara bigizonekin borrokan emakumen batengatik
(Egurra, oihala, haria eta soka; 48cm. garai, 60.5cm. zabal)

Máscara Gelede con dos hombres luchando por una mujer
(Madera, tela e hilo; alto 48cm., ancho 60.5cm.)

Gelede mask with two men fighting over a woman
(Wood, cloth and string; h. 48cm., w. 60.5cm.)



Alapafuja maskara

Egurra, oihala eta haria; 97.5 cm garai, 144 cm zabal.

Gorputz maskara honek dantzariaren burua eta gorputzaren goialdea ezkututzen ditu egurrezko enbor huts batekin. Giza buru bat edo gorila buru estilizatu bat du goialdean, eta hortz zorrotzez betetako ahoa. Batzuetan Gelede jaialdiaren alderdi periferiko gisa aipatzen da. Giza burudun maskarak Alapafuja izena du eta gorila burua duenak Ogede, baina badirudi izen biak erabiltzen direla bi kasuetarako. Alapafuja hitzak besoak zabaldua egiten den dantza mota bat (ijo fuja) izendatzen du eta gizonek nahiz emakumeek egin dezakete. Gorila sorginen agintepeko basoan bizi den izaki arriskutsua da eta Iyanla, Ama Handia edo sorginen buruarekin lotuta dago.

Ogede maskara, eta ziurrenik Alapafuja ere bai, goizeko saioan erabiltzen dira, gaueko Efe zeremoniaren eta arratseko Gelede jaialdiaren artean. Maskara bikote itzaltsuengana hurbiltzen da opariak jasotzeko. Maskarak dantzariaren buruaz gain bularra eta gutxienez aldaken zati bat ere ezkutatzen duenez, besoekin heldu behar izaten zaio eta beraz dantzari trebea behar da pieza hau eramateko. Beso zabalduak mugitzen dituzten hariak laguntzaile batek manipulatzeko ditu.

Badirudi Ogede maskara guztiak Abeokuta eta Egbado iparraldetik datozela. Alapafuja maskarekin ere gauza bera gertatzen dela ematen du, zeinak bizkarrean egurrezko haurtxo bat baitarama Ibooro en (Egbado). Horrelako maskarak Egbado iparraldetik hasita hedatu ziren Benineko Anago erlijiora iritsi arte). Kasu honetan, gure maskararen aho handiak eta hortz zuriek Ogede-ren hortz zorrotzak ekar ditzakete gogora. Badirudi mota honetako maskarak erabiltzen direla Anago sinestunen artean ere Gelede jaialdietako ospakizunetan. Baliteke Anago erlijioan izen desberdin bat ematea.

Máscara Alapafuja

Madera, tela e hilo; alto 97.5 cm., ancho 144 cm.

Máscara corporal en la que la cabeza del bailarín y la parte superior de su cuerpo están ocultas por un tronco hueco de madera, Coronado por una cabeza humana o una cabeza estilizada de gorila con una boca llena de feroces dientes. Se menciona en algunas ocasiones como un aspecto periférico del festival Gelede. La máscara con cabeza humana recibe el nombre de Alapafuja y la de cabeza de gorila Ogede, pero parece que estos nombres suelen utilizarse indistintamente. El nombre de Alapafuja significa una forma de danza con los brazos extendidos (ijo fuja) a cargo tanto de hombres como de mujeres. El gorila, una criatura peligrosa de la selva donde reinan las brujas, está asociado al jefe de las brujas, Iyanla, la Gran Madre.

La máscara Ogede, y, probablemente, también la Alapafuja, actúan a la mañana, entre la ceremonia nocturna Efe y el festival vespertino Gelede. La máscara se acerca a las parejas de personas distinguidas para recibir regalos. Puesto que la máscara oculta no solo la cabeza del bailarín, sino también su pecho y, como mínimo, parte de sus caderas, obligándole mantener sus brazos contra él, requiere de un bailarín experimentado. Los hilos que mueven los brazos extendidos son manipulados por un ayudante.

Parece que todas las máscaras Ogede provienen de la parte norte de Egbado y Abeokuta. Este parece ser también el caso de la máscara Alapafuja con un bebé de madera a su espalda, de Ibooro en Egbado. Este tipo de máscara se habría extendido de la parte norte de Egbado a los Anago en Benin. En ese caso, la gran boca y los dientes blancos de nuestra máscara bien podrían recordar a los dientes feroces de Ogede. Parece que máscaras de este tipo también se utilizan entre los Anago en la celebración de las festividades Gelede. Puede ser que los Anago les llamen con diferente nombre.



Gelede maskara bi txori eta txita batekin

Egurra, oihala, haria; 40 cm garai.

Azpiegituren dagoen maskara ziurrenik Yorubatarra ez den norbaitek tailatu zuen. Maskararen gainetik dagoen ohol solte batean txoriak irudikatzen dituzten bi txotxongilo daude: gorputza zangoei batzen zaien tokian pieza handi eta artikulatu bat dago eta ondoan bigarren pieza bat, burua eta lepoa mugitu eta hegala astindu ditzakeena. Bigarren txoriaren mokoan amarekin batera mugitzen den txita bat dago.

“Talde familiar” honek sorginek erregulatzen duten emankortasunaren erreferentzia alegorikoa dirudi. Kasu honetan sorginen botere positiboa nabarmentzen da maskaran eta horregatik, txorien mokoak ez dira gorriak.

Maskara hau Fon arrazaren ikuspuntu espezifikoetik ere interpretatu daiteke. Abomey-n, Glélé erregearen palazioa hildako erregeen ikurrez josita dago. Horien artean bi txori ikus daitezke mokoetan txita bat dutela. Badirudi irudi hau Glélé-ren arerioentzako ohartarazpen bat zela eta hauxe zuen esanahia: “erregearen indarra gutxiesten duen eta erreinuko armadari beldurrik ez dion arerioa lepotik zintzilikatua izango da, arranoak txori ahulagoak heltzen dituen bezala.”

Gelede maskara bi txita eta txori batekin

Egurra, oihala, haria, pigmentua; 35 cm garai.

Maskara honek ere sorginen funtzio babeslea irudikatzen du: txori handiak hegala zabaltzen ditu bere azpian babestuta dauden bi txitak erakusteko.

Máscara Gelede con dos pájaros y un pollito

Madera, tela, hilo; alto 40cm.

La máscara en la subestructura probablemente fue tallada por alguien que no pertenece a los Yoruba. Sobre una tabla suelta, encima de la máscara, hay dos marionetas que representan pájaros: una pieza grande articulada por la parte en la que el cuerpo se une a las piernas, y una segunda pieza que puede mover su cabeza y cuello, y puede agitar las alas. En el pico del segundo pájaro hay un pollito que se mueve con su madre.

Este “grupo familiar” parece ser una referencia alegórica a la fertilidad, que está regulada por las brujas. En este caso, es el aspecto positivo del poder de las brujas el que se quiere enfatizar, y, por eso los pájaros no tienen los picos rojos.

La máscara también puede interpretarse desde un punto de vista específicamente Fon. Los emblemas de los monarcas muertos están por todo el palacio del rey Glélé en Abomey. Entre ello, están dos pájaros con un pollito en sus picos. Parece que esto quería representar una advertencia para los enemigos de Glélé, que vendría a decir lo siguiente: “el enemigo que no crea en su fuerza y que no tema el ejército del reino será colgado del cuello, de la misma forma que el águila agarra un pájaro más débil.”

Máscara Gelede con pájaro y dos pollitos

Madera, tela, hilo, pigmento; alto 35 cm.

Esta máscara también representa la función protectora de las brujas: el pájaro grande alza sus alas para revelar a dos pollitos que se han refugiado debajo de él.



Gelede maskara gandordun txoriarekin

Egurra, oihala, haria; 55.5 cm garai.

Aurpegi zuri maskulino baten gainean txori handi bat dago. Bere gorputza eta zangoak azpiegituraren egur zatian bertan tailatuta daude. Kasu honetan soilik, beheko matraila eta hegalak mugitu egin daitezke. Txoriak gandorra dauka, kurriloa bailitzan.

Gelede maskara lepo luzedun txori batekin

Egurra, oihala, haria; 51 cm garai.

Txirikordadun emakume aurpegi zuria, gainean txori eme handi bat duela. Maskara hau aurrekoaren bikotea da eta pertsona berak tailatu zituen biak. Txoriaren gorputza eta oinak eta maskara bera egur zati berean tailatuta daude; hegalak eta lepo luzea (buru txikia, moko luze eta zuria eta begi zuriak dituen) oihal zatiekin lotzen zaizkio gorputzari eta mugitu egin daitezke. Lepo luzea eta moko zuzena ez datoz bat inongo txori-sorginen deskribapenekin, ezta koloreak ere (hegal zuriak, hanka gorriak eta gorputz berdea). Kasu honetan, txoriak antzerkian izango duen efektua gailendu egin zaie konbentzio ikonografikoei. Egituran sexuak bereizten direnez, maskara honek eta aurrekoak animalia bikotea irudikatzen dute, harra bata eta emea bestea.

Ez da ezagutzen hain txori handiak dituzten Gelede maskaren ilustraziorik. Antzekoena, taula baten gainean txori ikaragarri handi bat duen Gelede maskara bat da. Txori horrek gainera oso lepo luzea dauka eta “ostruka” deitzen zaio.

Máscara Gelede con pájaro con cresta

Madera, tela, hilo; alto 55.5 cm.

Encima de una cara blanca masculina hay un gran pájaro. Su cuerpo y piernas están talladas en el mismo trozo de madera de la subestructura. Sólo en este caso, su mandibular mandíbula? baja y sus alas tienen movilidad. El pájaro tiene una cresta, como una grulla.

Máscara Gelede con un pájaro de cuello largo

Madera, tela, hilo; alto 51 cm.

Una cara blanca de mujer con trenzas, que tiene encima un gran pájaro hembra. Esta máscara es pareja de la anterior y fue tallada por la misma persona. El cuerpo y los pies del pájaro, y la máscara están tallados en el mismo trozo de madera; las alas y el cuello largo (con una pequeña cabeza, un pico largo y blanco, y ojos blancos) están unidos al cuerpo con trozos de tela y pueden moverse. El cuello largo y el pico recto no coincide con la descripción de ningún pájaro brujo, ni tampoco los colores (alas blancas, patas rojas y cuerpo verde). En este caso, el efecto teatral del pájaro ha prevalecido sobre las convenciones iconográficas. Dada la diferencia de sexos en la estructura, entre otras cosas, esta máscara y la anterior representan una pareja de animales, macho y hembra.

No se conocen ilustraciones de máscaras Gelede con pájaros tan grandes. La más parecida es un dibujo de una máscara Gelede que porta encima de una tabla un pájaro extremadamente grande y con un cuello extremadamente largo, al cual se le describe como “avestruz”.



Gelede maskara kalao batekin

Egurra, oihala, haria; 147 cm garai.

Txoriaren burua eta maskara bera egurrezko pieza berean tailatuta daude. Lepoa, beheko matrila eta hegalak mugitu egin daitezke. Txori zuri-beltzak kailu gorri bat dauka buruaren gainean, detaile handiz irudikatua. Ziurrenik sabana ezaguneko izaki bat irudikatzen du, kalao deiturikoa (*Bucornus abyssiniens*); animalia horrek ia ezin du hegan egin eta txori-sorgina deitu ohi zaio. Mezularia dela eta sakrifizioak egiten dituela ere pentsatzen da, Eshu mezulari zerutarraren gisan. Gainera, zaintza ikurra da. Mendebaldekoentzat nahiko bitxia da hain zehatz eta hainbesteko kontuz tailatutako izaki bat aurkitzea; batetik sorginkeria beldurgarriak irudikatzen dituela suposatzen da baina bestetik plastikozko hodi baten bidez egiten du txiza.

Máscara Gelede con calao

Madera, tela, hilo; alto 147 cm.

La cabeza del pájaro está tallada en la misma pieza de madera que la máscara. El cuello, la mandíbula de abajo y las alas pueden moverse. El pájaro blanco y negro tiene un callus rojo (que está reproducido con gran detalle) encima de la cabeza. Probablemente, representa una criatura de la savana conocida, caláo (*Bucornus abyssiniens*), que apenas puede volar, y a la que suelen referirse como pájaro brujo. También se piensa que es un mensajero y que realiza sacrificios, como el mensajero divino Eshu. Además, es un símbolo de vigilancia. Para los occidentales resulta bastante desconcertante encontrar una criatura que ha sido tallada con tal minuciosidad y cuidado, y que se supone que simboliza conjuros terroríficos, y que, a la vez, orina a través de un tubo de plástico.



Eshu-Ogbagba, txotxongilodun maskara

Egurra, oihala, haria; 53 cm garai.

Maskara honetan txirikordadun dantzari bat ageri da maskara zuri batekin. Maskararen goialdean suge bat dago iltzaturik. Ikur horrek sarritan lyanla sinbolizatzen du, Ama Handia. Maskararen ertz batetik zintzilik lepoa eta sorbaldak estaltzen dituen kapa berezi bat dago. Kapa horrek ez ditu txotxongiloen mekanismoak ezkutatzen, beraz dantzariaren arropetako bat delako dago hor.

Txotxongiloak ezkerreko hanka mugi dezake, horregatik dirudi ezkerretik eskuinera dabilela. Eskuineko eskuan kotoizko zerrenda fin batzuk ditu eta material berarekin egindako lodiago batzuk ezkerrean. Ziurrenik hegan egiteko lumak iradokitzen dituzte. Gona koloretako zerrendaz egina dago. Gelede dantzarien jantzi klasikoak irudikatu ditzake modu estilizatu batean, hots bururako zapi kopuru ikaragarria eta emakumeen xal koloretsuak. Batzuetan dena den, gonek motibo bakarra izaten dute: platanondo hostoak.

Gelede dantzari guztiak bezala, maskaradunak “txintxirrinak” daramatza zangoetan. Babestea da horien helburua: esate baterako, haurrak babesten dituzte abiku deituriko izakiengandik. Era berean, erritmoa markatzen duten musika instrumentuak ere badira.

Adituek dokumentatu dutenez gaueko Efe zeremonia txotxongilo emanaldi komiko batekin hasten da. Toki batzuetan txotxongiloaren atzetik maskaradun pertsona ugari pasatzen dira bata bestearen segidan, Tetede eta Efe iristean hasten den “egitarau nagusiaren” aurrerakin gisa.

Txotxongiloaren ostean agertzen diren bi maskarek Ogbagba izena dute eta biek Eshu-Elegba bufoi eta mezulari zerutiarra irudikatzen dute. Horien atzetik Ogun, burdinaren jainkoa sinbolizatzen duen maskara bat dator. Efe zeremoniaren hasieran Eshu mezulariari eta Ogun burdinaren jainkoari eskatzen zaie gonbidatu ditzatela sorginak eta bestelako indar kosmikoak ospakizunetan

parte hartzera eta beraientzat basorako bidea garbitu dezatela ere bai.

Maskara eta dantzaria detaile handiz irudikatuta daudenez, badirudi Efe/Gelede maskara bat dela. Hala balitz, ziurrenik gaueko maskara bat izango da. Hala, Efe zeremonia hasi baino lehen jarduten duen txotxongiloa litzateke, adituen arabera horixe baita Efe zeremonian txotxongiloak agertzen diren une bakarra.

Titerea Eshu/Ogbagba maskaren arteko konposatu bat izan liteke. Hala eta guztiz ere, dantzariak daraman maskarak emakumezko baten orrazkera txirikordaduna duenez, zalantzan jartzekoa da interpretazio hau.

Eshu-Ogbagba, mascara con marioneta

Madera, tela, hilo; alto 53 cm.

Esta mascara representa una bailarina con trenzas con una mascara blanca. Clavada a la parte superior de la mascara hay una serpiente. Una serpiente encima de una mascara a menudo hace referencia a lyanla, la Gran Madre. Colgando de un vértice de la máscara tiene una especial de capa que le cubre el cuello y los hombros. La capa no oculta ningún tipo de mecanismo de la marioneta, luego está ahí porque pretende ser parte del vestuario del bailarín.

La marioneta puede mover su pierna izquierda, de forma que parece que anda de izquierda a derecha. Lleva unas delgadas tiras de algodón en su mano derecha, y otras más gruesas del mismo material en la izquierda. Estas, probablemente, quieran sugerir plumas para el vuelo. La falda, que está realizada con tiras de colores puede ser una representación estilizada de la vestimenta clásica de los bailarines Gelede, que consiste en un número inmenso de pañuelos para la cabeza y chales femeninos de muchos colores. A veces, de todas formas, las faldas presentan un solo motivo: hojas de platanero.

Como todos los bailarines Gelede, el portador de la mascara lleva “sonajeros” en sus piernas. Tienen una función de protección: por ejemplo, protegen a los niños de los abiku. Al mismo tiempo, son instrumentos musicales que indicant el ritmo.

Estudiosos han documentado que la ceremonia norcturna Efe empieza con una actuación cómica de una marioneta. En algunos lugares, a la marioneta le siguen una rápida sucesión de portadores de máscaras que son un avance del “programa principal”, que comienza con la llegada de Tetede y Efe.

Las dos primeras mascaras que aparecen después de la marioneta reciben ambas el nombre de Ogbagba y ambas representan al mensajero divino y bufón Eshu-Elegba. A éstas les sigue una mascara que simboliza al dios del hierro Ogun. Al principio de la ceremonia Efe, el mensajero Eshu y el dios del hierro Ogun son interpelados a invitar a las brujas y otras fuerzas cósmicas a venir y participar en las festividades, y a limpiar el camino al bosque para ellas.

El hecho de que la máscara y el bailarín estén representados con tanto detalle sugiere que ésta es una máscara Efe/Gelede. De ser así, lo más probable es que se trate de una mascara nocturna. Se trataría, por tanto, de una marioneta que actúa antes de que la ceremonia Efe comience, ya que, según los estudiosos, es el único momento en el que aparecen marionetas en la ceremonia Efe.

La marioneta podría ser una especie de compuesto entre las máscaras de Eshu/Ogbagba. Sin embargo, el hecho de que la mascara que lleva el bailarín lleve un peinado femenino, con trenzas, pone en entredicho esta interpretación.



Gelede maskara gizon bat eta bikiekin

Egurra, oihala, haria; 55 cm garai.

Maskara honen zati ia guztiak mugitu daitezke. Maskararen gaínean, bere bikiak harro erakusten dituen gizon bat ikusten da. Gizonak burua jiratu dezake, begiak itxi eta mihia atera ere bai. Eskuineko haurrak besoak eta betazalak mugi ditzake, ezkerrekoak berriz burua jiratzeaz gain besoak eta zangoak ere mugitzen ditu. Mugimendu horiekin erakusten da haurrak bizirik daudela eta aita haiekin jolasean dabilela, zoriontsu. Horregatik, aita bat bere seme biki hilengatik negarrez ari dela eta hileta maskara dela dioen interpretazioak ez dirudi zuzena.

Maskarak hainbeste mugimendu egin ditzake ezen guztiak ongi ikusteko modu bakarra dantzaria nahiko geldirik egotea baita, eta jendeak hurbiletik ikustea.

Bikien eta Gelede gizartearen arteko lotura oso agerikoa da. Yorubatarrentzat Amak ez dira indar gaiztoak hasieran, komunitatea ongi dagoela zaintzen dutenak baizik. Funtzionamendu egokirako besteak beste funtsezkoa da emankortasuna eta bikiak jakina, oparotasunaren ikur dira.

Tetede eta Oro Efe gaueko maskarak batzuetan bikitzat jotzen dira eta gauza bera esaten da arratsaldeko Gelede zeremonian parte hartzen duten maskara berdinei buruz. 1950 urte inguruan, aditu batek bikiak irudikatzen dituzten egurrezko bi panpina dokumentatu zituen Nigeria eta Benin arteko muga. Jarraian esaten du bikien amek maskararen inguruan dantza egiten zutela. Erakusketako maskarak antzeko eszena bat irudikatu lezake, kasu honetan harro dagoen aita bat den arren.

Máscara Gelede con un hombre y gemelos

Madera, tela, hilo; alto 55 cm.

Casi todas las partes de esta máscara pueden moverse. Encima de la máscara hay un hombre que enseña orgulloso a sus dos gemelos. El hombre puede girar la cabeza, cerrar los ojos, e, incluso, sacar la lengua. El niño a su derecha puede mover los brazos y párpados, mientras que el que está a su izquierda puede girar la cabeza, mover los brazos y también las piernas. Todos estos movimientos demuestran que los niños están vivos y que su padre está jugando con ellos feliz. Por ello, la sugerencia de que ésta es una máscara funeraria que enseña a un padre llorando a sus dos hijos gemelos muertos no parece muy plausible.

Esta máscara es capaz de tantos movimientos que solo puede apreciarse de verdad si el bailarín que la porta está más o menos quieto y si la gente puede verla de cerca.

La conexión entre gemelos y la sociedad Gelede no es difícil de encontrar. Para los Yoruba, las Madres no son fuerzas malignas en una primera instancia, sino las que cuidan de la buena marcha de la comunidad. Una parte esencial de ésta es la fertilidad, y los gemelos son, por supuesto, un signo distintivo de ello.

Las máscaras nocturnas Tetede y Oro Efe a veces son tenidas por gemelas, y lo mismo se dice de las máscaras idénticas que actúan a la tarde en la ceremonia Gelede. Alrededor del año 1950, un estudioso documenta en la frontera entre Nigeria y Benin dos muñecos de madera que representaban gemelos. También dice, a continuación, que madres de gemelos danzaban alrededor de la máscara. La máscara de la exposición podría representar una escena similar, si bien en este caso se trata de un padre orgulloso.



Sabelalde bat bikiekin

Egurra, oihala, haria; 51 cm garai.

Dantzariaren bularra eta sabela estaltzen duten egurrezko maskarak (igi aya) nagusiki Anago sinestunen artean eta Ohori eskualdean aurkitzen dira baina Abeokuta eta Lagos hirietan ere aurkitu dituzte. Normalean haurdun dagoen emakume bat (aboyun) irudikatzen dute, baina batzuetan gizonezkoak ere errepresentatu ditzake. Kasu bakoitzerako maskara maskulinao edo femeninoa egiten da.

Kasu honetan bikiak ikusten dira maskaran, mutiko bat eskuinean eta neskato bat ezkerrean. Bularretik zintzilik daude eta esnez elikatu ditzake hodi txiki baten bidez. Haurren buruak titi-buruetarantz jiratu daitezke edo albo batera begira dezakete, ikuslearengana. Horrek are gehiago zentratzen du arreta esnea jariatzen duen bularrean. Ziurrenik Yemoja jainkosaren erreferentzia da, “esnea darion bularra duen Ama” izenarekin ezaguna.

Gorputz-maskara oso bat eraman beharrean, Gelede dantzariak sarri egurrezko bular oso estilizatuak janzten dituzte. Batzuetan “bular” horiek biki forma (ibeji) izaten dute, beste behin ere Gelede gizartearen eta bikien arteko lotura indartuz.

Figura de un abdomen con gemelos

Madera, tela, hilo; alto 51 cm.

Máscaras de madera que cubren el pecho y la tripa del bailarín (igi aya) se encuentran, sobre todo, en Anago y Ohori, pero también se han podido ver en Abeokuta y Lagos. Normalmente, representan a una mujer embarazada, conocida como aboyun, pero de vez en cuando también representan a hombres. En un caso u otro respectivamente se porta una máscara masculina o femenina.

En este caso se muestran una pareja de gemelos, un niño a la derecha y una niña a la izquierda, colgando del pecho, que puede alimentarles con leche a través de un tubo pequeño. Las cabezas de los niños pueden moverse hacia los pezones o mirar a un lado, de cara al espectador. Esto focaliza más la atención si cabe en el pecho que amamanta, posiblemente, una referencia a la diosa Yemoja, quien es conocida como “la Madre con el pecho que amamanta”.

En lugar de una máscara corporal completa, los bailarines Gelede a menudo llevan solo pechos de madera muy estilizados. En ocasiones, estos “pechos” están esculpidos en forma de gemelos (ibeji), lo cual enfatiza una vez más la unión entre Gelede y gemelos.



Gelede maskara Mami Wata-rekin

Egurra, oihala, haria; 58 cm garai.

Mami Wata ibaietako emakumezko espiritua da. Bere jarraitzaileei oparotasuna eta aberastasuna ematen ei dizkie eta bere haserrea pizten dutenak suntsitu egiten ditu. Afrikako berrogeita hamar tribuk baino gehiagok ohoratzen dute, atzerritik etorritako jainkosa dela uste badute ere. Horregatik, bere erretratuetan nabaria da Europako suge-liluratzaille irudien, jainko indiarren errepresentazioen edota Afrika bisitatu zuten ontzietan iritsitako Europako erretratuen eragina.

Mami Wata ia beti ile oso beltz eta luzea duen emakume zuri gisa errepresentatzen da, arrain isatsarekin. Esku batean burua baino gorago iristen zaion suge luze bat dauka. Bere izenak Ur Ama esan nahi du landu gabeko ingelesez eta Yemoja edo Olokun bezala, itsasoaren aberastasunarekin lotuta dago, kasu honetan itsasoz bestaldetik iristen den jendearen aberastasunarekin. “Mami” izena duen arren, jendeak ez du seme-alabak emango dizkien itxaropenez ohoratzen (desberdintasun hori oso garrantzitsua Yorubatarren uretako gainerako jainkoekiko). Bere jarraitzaile afrikarrek uste dute ontzi harrigarrietan itsasotik irten ziren uretako beste espiritu batzuen (europarren) aberastasun eta boterearen pertsonifikazioa dela.

Hemen ikusgai dagoen Gelede maskarak bi aurpegi dauzka (horia aurrean eta marroia atzean). Aurpegi hori eta marroiak Mami-ren alderdi ona eta gaiztoa sinbolizatu ditzakete. Mihi gorridun suge gris eta zuri bitxi samar batek elkartzen ditu bi aurpegiak.

Banda txuri-urdin batean bilduta dagoen isats gris eta hegats gorridun sirena Mami Wata baino ezin daiteke izan, nahiz eta normalean eskuan eusten duen sugea hemen behean ageri den eta famatu egiten duen ile beltz luzerik ez duen. Burua jiratu eta gora eta behera astindu dezake. Eskuineko eskuan kanpaitxo edo gong bat dauka.

Sirenaren eskuineko esku handiak sei hatz ditu. Isatsaren aurrealdeko gurutzeak atzerritarren erlijioari egiten dio erreferentzia. Bitxia dirudien arren Mami Wata deskribatzen duten ezaugarrietako asko ez dira ageri maskara honetan: ile beltz luzeaz beste hiru puntako sardea eta ispiluak falta zaizkio. Agian kasu honetan gainerako Amen antzera irudikatu dute uretako jainkosa den aldetik eta Yemoya, “Arrainen Ama” pertsonaiarekin asimilatu dute.

Máscara Gelede con Mami Wata

Madera, tela, hilo; alto 58 cm.

Mami Wata es un espíritu fluvial femenino que se piensa que proporciona a sus seguidores prosperidad y fortuna, y que destruye a quienes encienden su ira. Más de cincuenta tribus le rinden culto en Africa, donde se le considera una deidad venida del extranjero. Por tanto, sus retratos están influenciados por imágenes europeas de encantadoras de serpientes, representaciones de dioses indios y, posiblemente, mascarones de proa de barcos europeos retratos europeos que viajaron en barcos que visitaron Africa.

Mami Wata se representa casi siempre como una mujer blanca con pelo muy negro y largo y, a veces, con cola de pez. En una mano agarra una serpiente larga que llega más allá de su cabeza. Su nombre significa Agua Madre en un ingles muy rudimentario y, como Yemoja y Olokun, se le asocia a la riqueza del mar y, más en su caso, a la riqueza de la gente de allende los mares. A pesar del nombre de “Mami”, la gente no la venera con la esperanza de ser bendecida con hijos (una diferencia muy importante respecto a las deidades del agua nativas de los Yoruba). Sus seguidores africanos piensan en ella como personificación de la riqueza y poder de los otros espíritus del agua (europeos) que emergieron del agua con sus impresionantes barcos.

La mascara Gelede aquí expuesta tiene dos caras (una amarilla de frente y una marrón mirando detrás). Las caras amarilla y marrón puede simbolizar los lados benevolente y malevolente de Mami respectivamente. Una serpiente gris y blanca con la lengua roja y de apariencia algo extraña une las dos caras.

La sirena blanca de cola gris con aletas rojas envuelta en una banda azul y blanca no puede ser otra que Mami Wata, aunque la serpiente que normalmente tiene sujeta en su mano aparece aquí abajo y a pesar de no tener la larga cabellera negra por la que es tan famosa. Su cabeza puede girar y asentir. En su mano derecha está sujetando una campanilla o gong. La gran mano izquierda de la sirena tiene seis dedos. La cruz en la parte delantera de la cola hace referencia a la religión de los extranjeros. Es curioso que muchos de los más característicos atributos de Mami Wata estén ausentes en esta mascara: no solo su larga cabellera negra, sino también su tridente y sus espejos. Quizás, en este caso, el personaje ha sido más o menos asimilado a las Madres en su capacidad como diosa del agua, y, en particular, ha sido asimilada a Yemoya, “la Madre de los Peces”.



Gelede maskara komunio eszenarekin

Egurra, haria; 45 cm garai.

Erlijioso katolikoa betaurrekoekin (galtza urdinak, galtzerdi gorriak eta zapata beltzak ageri dira azpitik), Arrosario bat dauka ezkerreko eskuan. Bere parean emakume bat dago eta aurrerantz mugitu daiteke apaizak eskuineko eskuarekin ahoan jartzen dion hostia jasotzeko.

Kristautasunetik edo Islametik hartutako eszena horiek ez dira satirikoak, aitzitik sorginek bultzatutako erlijioen arteko harmonia sinbolizatzen dute.

Máscara Gelede con escena de comunión

Madera, hilo; alto 45 cm.

Un religioso católico con anteojos (con pantalos azules, calcetines rojos y zapatos negros que asoman por abajo) lleva un Rosario en su mano izquierda. Enfrente de él aparece una mujer que puede moverse hacia delante para recibir la hostia que el cura puede poner en su boca con la mano derecha.

Estas escenas prestadas del Cristianismo o del Islam no pretenden ser satíricas, sino que simbolizan la armonía religiosa animada por las brujas.



Gelede maskara, bi emakume arraina saltzen

Egurra, oihala, haria; 42 cm garai.

Merkatuan bi emakume arraina saltzen ari dira. Besoak gorantz eta beherantz mugitu ditzakete aurkezpen keinua eginez. Bildutako arraina bagre bat da, sarritan bildu edo zurtoin batean sartzen da erakusteko.

Bada bitxikeria bat: emakumezkoek emakume arropa daramatela dirudi baina ez daukate orrazkera femeninorik, ez eta bular nabarmenik. Baliteke buruan zapiak izatea, guganaino iritsi ez diren arren. Hala eta guztiz ere ez dago sexua zehaztu beharrik, errepide ertzean objektuak saltzea emakumeen lana baita; gizonezkoek ez daukate behar adina asmamen horretarako.

Bi emakumeak bikiak izan daitezke, ia berdin jantzita daudelako edo baliteke senar berbera izatea.

Maskara Afrikan konpondu zuten eta super-egiturara ematen duten alferreko zuloak ikusita ziurrenik lehenago beste eszena bat zuen gainean.

Máscara Gelede con dos mujeres vendiendo pescado

Madera, tela, hilo; alto 42 cm.

Dos mujeres del Mercado están vendiendo pescado. Sus brazos pueden moverse arriba y abajo en un gesto de presentación. El pescado envuelto es un bagre que a menudo se envuelve o empala para mostrarse.

Lo que es curioso es que las mujeres parecen llevar ropa de mujer, pero no llevan peinados femeninos ni tienen pechos evidentes. Puede que llevasen pañuelos en la cabeza que se hayan perdido. Sin embargo, de hecho, no hay necesidad de especificar su sexo, ya que la venta de objetos al borde de la carretera es trabajo de mujeres; los hombres no son suficientemente ingeniosos para hacerlo.

Las dos mujeres podrían ser gemelas, dado su casi idéntico vestuario, o podrían estar casadas con el mismo marido.

La máscara ha sido reparada en África y, a juzgar por los superfluos agujeros que dan a la superestructura, anteriormente había una escena diferente encima.



Gelede maskara bi ontzi eraikitzaileekin

Egurra, oihala, haria; 47 cm garai.

Bata bestearen ondoan dauden bi arotz zuhaitz baten enborra husten ari dira aizkoraz ontzi bat eraikitzeko.

Máscara Gelede con dos constructores de barcos

Madera, tela, hilo; alto 47 cm.

Dos carpinteros, uno al lado del otro, están ahuecando un tronco de árbol para construir un barco a golpe de hacha.



Gelede maskara sutegi batekin

Egurra, oihala eta haria; 45.5 cm garai, 55 cm zabal.

Txanodun kapa soinean daraman errementari batek gori-
gori dagoen burdinazko pieza bat mailuaz kolpatzen du
ingude baten gainean eta ondoan duen laguntzaileak
berriz hauspoari eragiten dio. Azken pieza hori mugitu egin
daiteke eta errementariaren besoak ere bai.

Irudi biak beste figurako txotxongiloaren oihal bera erabiliz
jantzita daude baina maskara eta gizona beste norbaitek
eginak dira. Horrek erakusten du batzuetan oihala bakarrik
ordezkatzela maskarak berrerabiltzen direnean.

Máscara Gelede con forja

Madera, tela, hilo; alto 45.5 cm., ancho 55 cm.

Un Herrero que viste una capa con capucha está
martilleando una pieza de hierro al rojo vivo sobre un
yunque, mientras un asistente a su lado acciona el fuelle,
que se mueve. Los brazos del herrero también se mueven.

Ambas figuras están vestidas con la misma tela que otra
figura, aunque tanto la máscara como el hombre fueron
hechos por una persona diferente. Esto muestra que a
veces solo se suele reemplazar la tela cuando se reutilizan
las máscaras.



Gelede maskara kopula eszenarekin

Egurra, oihala eta haria; 40 cm garai, 48 cm zabal.

Emakume bat buruz gora ageri da etzanda, guztiz jantzita eta erabat biluzik dagoen gorriz margotutako gizon batek zakila sartzen dio aurrera eta atzera mugitzen delarik.

Máscara Gelede con escena de cópula

Madera, tela, hilo; alto 40 cm., ancho 48 cm.

Una mujer se muestra tumbada boca arriba totalmente vestida, mientras un hombre pintado de rojo, completamente desnudo, la penetra pudiendo moverse hacia adelante y hacia atrás.



Gelede maskara edale batekin

Egurra, oihala, haria; 43 cm garai.

Gizon bat kalabaza bat edo pitxer bat betetzen ari da bidoi handiago batetik eta seguru asko garagardoa den likidoa eskaintzen dio bizar txiki bat duen adineko gizon garrantzitsu bati. Figura biak eseri eta zutitu egin daitezke eta adineko gizonak ia bi eskuekin eutsi dezake kalabaza. Gizon horren ezkerreko eskuan 7 oskoldun hari bat ageri da. Baliteke horrek gizonaren aberastasuna erakustea edo emandako zerbitzuengatikoa saria izatea.

Guztiaren gainetik txori-sorgin bat ageri da, Amen gainbegiraketa irudikatuz.

Máscara Gelede con persona bebiendo

Madera, tela, hilo, conchas; alto 43 cm.

Un hombre está llenando una calabaza o una jarra de un bidón mayor y ofrece lo que probablemente sea cerveza a un distinguido hombre mayor con una pequeña barba. Ambas figuras pueden sentarse y levantarse y el hombre mayor casi puede agrarrar la calabaza con ambas manos. Este hombre tiene atada a la mano izquierda un hilo con 7 conchas que puede indicar la prosperidad del hombre y un premio por los servicios prestados.

La presencia de un pájaro brujo envuelve toda la escena bajo la supervisión de las Madres.



Gelede maskara sekere txintxarriak eusten

Egurra, oihala, haria; 44 cm garai.

Lurrean eserita dauden bi emakumek kalabazazko txintxarriak astintzen dituzte eskuineko eskuarekin. Kalabazazko txintxarriek bihi urdin eta zurizko zerrendak dauzkate lotuta. Kolore horiek Yemoja-ri egiten diote erreferentzia. Mota honetako kalabazazko txintxarriek sekere izena dute eta emakumeek erabiltzen dituzte. Gelede musikariek ez dituzte erabiltzen baina maskarak jantzita dantzatzan duten emakumeek bai ziurrenik.

Emakumeak hurrengo maskarako lurperatzaileen material berberarekin jantzita daude. Buruan egur pieza berean tailatutako zapiak daramatzate. Buruko zapiak begiztak dauzkate.

Maskara hau eta hurrengo biak pertsona berak egin zituen.

Máscara Gelede sujetando cascabeles sekere

Madera, tela, hilo; alto 44 cm.

Las dos mujeres sentadas en el suelo baten los cascabeles de calabaza que tienen en su mano derecha. Atadas a los cascabeles de calabaza hay tiras con cuentas azules y blancas. Estos colores son una referencia a Yemoja. Los cascabeles de calabaza de este tipo (conocidos como sekere) suelen ser utilizados por mujeres. Los músicos Gelede no los utilizan, pero sí probablemente las mujeres que bailan con máscaras.

Las mujeres están vestidas con el mismo material que los sepultureros de la máscara siguiente. Tienen tallados en la cabeza pañuelos de la misma pieza de madera. Los pañuelos de la cabeza tienen lazos.

Esta máscara más las dos siguientes fueron hechas por la misma persona.



Gelede maskara hileta eszenarekin

Egurra, oihala, haria, ispiluak; 37 cm garai.

Bi gizonen jantzi tradizional berdin-berdinak eta txapelak dituzte soinean, ziurrenik hildakoaren senitartekoak izango dira. Hilkutxa bi aulkiren gainean uzten ari dira. Oso ohikoa da hori otoitz egin behar bada edo hiletan zehar hitzaldiren bat egingo bada.

Hilkutxan bi ispilu daude, hildakoen erreinua den “beste mundura” begiratu ahal izateko. Hilkutxak gurutze bat eta ertz apainduak ditu.

Máscara Gelede con escena de funeral

Madera, tela, hilo, espejos; alto 37 cm.

Los dos hombres, vestidos idénticamente con trajes tradicionales, llevan sombreros y probablemente sean familiares de la persona que ha fallecido. Están dejando el ataúd sobre dos sillas, algo bastante común cuando se va a orar o se va a pronunciar algún discurso durante un funeral.

En el ataúd hay dos espejos que ofrecen una ojeada al “otro mundo”, el reino de los muertos. El ataúd está decorado con una cruz y bordes ornamentales.



Gelede maskara emakume batekin eta uretako danbor batekin

Egurra, oihala, haria; 31 cm garai.

Indiarren erara lurlean eserita dagoen emakume batek uretako danbor bat uzten du belaunen gainean bi eskuekin. Uretako danborra da emakumeei jo dezaketen bakarra. Oinarri handi bat du, erdiraino urez betetako ontzi edo tina batekin egina. Azaleran kalabaza txikiago bat dauka. Bi makilekin jotzen da kalabaza hori. Instrumentu osoa etxeko tresnekin egina dago, danborraren zati gisa erabili ondoren etxean zuten funtzioa berreskuratu dezaketen lanabesekin.

Emakumea eserita dagoen plataformaren inguruan suge bat ageri da, ziurrenik Oshumare, pieza Anago erlijiokoa baita. Hori da kosmosa inguratzen duen eta emankortasuna bermatzen duen sugea.

Máscara Gelede con una mujer y un tambor de agua

Madera, tela, hilo; alto 31cm.

Una mujer sentada en el suelo a lo indio deja reposando en las rodillas con ambas manos un tambor de agua. El tambor de agua es el único tambor que pueden tocar las mujeres. Tiene una base grande con un recipiente o tina medio lleno de agua, con una calabaza más pequeña cabeceando arriba y abajo en la superficie. Ésta es batida con dos palos. Todo el instrumento está hecho con utensilios de casa, los cuales, después de ser utilizados como parte del tambor, pueden retomar su función doméstica.

Alrededor de la plataforma donde está sentada la señora hay una serpiente, probablemente Oshumare, puesto que la pieza viene de Anago. Esta es la serpiente que rodea el cosmos y garantiza prosperidad.



Gelede maskara hileta eszenarekin

Egurra, oihala, kristala, haria; 48 cm garai.

Ez dago oso argi maskara hau apropos egin ote zen hileta zeremonietarako edo Gelede zeremonietan bakarrik erabiltzen zen. Maskarak ezaugarri bereziak ditu, zalantzarik gabe norbanako zehatz baten heriotzari buruzkoak. Hala ere, hileta zehatz baterako egina izanagatik, ziur gerora Gelede zeremonietan ere parte hartu duela.

Yorubatarren ustez hileta funtsezko errittoa da, hildakoari arbasoekin elkartzeko aukera ematen diolako. Bestela sasi tartean ibiliko zatekeen biziei arazoak sortuko lizkiekeen espiritu asaldatu batekin.

Eszena honetan ageri den hileta seguruenera kristaua izango da. Hildakoaren burua eta gorputza oihalez jantzita daude begietako zuria bakarrik ikusten zaiolarik eta gorpua hilkutxan ageri da kristalezko tapa baten azpian. Hilkutxa bera zeharka jarrita dago, barneko gorpua argi ikus dadin.

Eszena honetan arreta erakartzen duena da (hileta eszenak dauzkaten beste maskarekin ere sarri gertatzen den bezala) gorpua lurperatu behar duten gizonak margoturik daudela, horiz bata eta gorriz bestea. Maskararen aurpegiak hortzak erakusten ditu, heriori erreferentzia eginez.

Máscara Gelede con escena de funeral

Madera, tela, cristal, hilo; alto 48 cm.

No está muy claro si esta mascara fue hecha exprofeso para ceremonias funerarias o si tan solo se utilizaba en las ceremonias Gelede en general. La máscara tiene características propias y se refieren, sin duda, a la muerte de un individuo concreto. Sin embargo, aunque fuese hecha para un funeral específico, seguro que ha tomado parte después en ceremonias Gelede en general, en conmemoración del funeral.

Los Yoruba consideran el funeral un ritual esencial, ya que posibilita a la persona que ha fallecido reunirse con sus ancestros en vez de vagar por los arbustos con un espíritu impaciente que probablemente ocasionaría problemas a los vivos.

El funeral que se muestra en esta escena es, probablemente, cristiano. La cabeza y el cuerpo del fallecido están amortajados, de forma que tan sólo se le ve el blanco de los ojos, y el cuerpo descansa en el ataúd debajo de una tapa de cristal. El ataúd está puesto de lado, de forma que se pueda ver claramente el cuerpo dentro.

Lo que llama la atención en esta escena (como ocurre a menudo con otras mascarar que recogen escenas funerarias) es que los dos hombres que van a enterrar el cuerpo están pintados, uno de amarillo y el otro de rojo. La cara de la mascara está enseñando los dientes, lo cual es una referencia a la muerte.



Gelede maskara, bi emakume eskuetan txintxarriak (sekere) eta buruetan aulki txikiak dituztela

Egurra, haria; 44.5 cm garai.

Bi emakumeak merkatura doazela dirudi; bertan ez dute Gelede musikariekin joko, zeremoniako atsedendietan baizik eta maskarak eszenatik irten edo bertara sartzen diren bakoitzean. Kalabazak puntu zuri eta urdinekin dekoratuta daude Yemoja-ri erreferentzia eginez eta badirudi bihi sare batek estaltzen dituela. Horrela ondorioztatu daiteke kalabazako txintxarriak ez direla shere (Shango-ren kultuan hain paper garrantzitsua dutenak) baizik eta sekere (sarri emakumeek jotzen dituztenak).

Lehen ikusian, txirikordatu gabeko ile laburra dutenez eta bularrik nabarmentzen ez zaienez figura maskulinoak dirudite, baina daramaten arropak, ageri zaien bular txikiak eta eskuetan daramatzaten txintxarriek adierazten dute ziurrenik eta aurrekoak gora-behera emakumezkoak direla. Hala ere batzuk diote gizonezkoak direla eta eszena osoa pertsona garrantzitsu baten hiletarekin lotzen dute.

Emakumeek eskuineko eskua mugitu dezakete ezkerreko eskuak (oso handiak) txintxarriekin kolpatzeko.

Máscara Gelede que muestra a dos mujeres con cascabeles (sekere) en sus manos y pequeñas sillas en sus cabezas

Madera, hilo; alto 44.5 cm.

Las dos mujeres parecen estar de camino al Mercado, donde no tocarán con los músicos Gelede, sino en los intermedios de la ceremonia y cada vez que las mascararas entren y salgan de escena. Las calabazas están decoradas con puntos blancos y azules, lo cual hace referencia a Yemoja, y parecen estar cubiertas por una red de cuentas. De esto, se puede deducir que los cascabeles de calabaza no son shere (que juegan un importante papel en el culto a Shango), sino sekere (a menudo tocados por mujeres).

A primera vista, al tratarse de figuras con pelo corto no trenzado y sin pechos evidentes, ambas figuras parecen masculinas, pero la vestimenta que llevan, el atisbo de pechos y el tipo de cascabeles que están sujetando indican que, probablemente y a pesar de todo, son mujeres. No obstante, hay quien sostiene que se trata de hombres y asocian toda la escena a la de un funeral de una persona iniciada eminente.

Las mujeres pueden mover su brazo derecho y así pueden golpear sus manos izquierdas (que son muy grandes) con los cascabeles.



Gelede maskara, gizon bat telefonoz hizketan

Egurra, oihala, haria; 46 cm garai.

Gizonak bi eskuak eta ukalondoa mugitu ditzake eta burua eta bularra apur bat eskuinerantz jiratu ere bai (aldaken pareraino), horrela telefonoa belarrira eraman dezake. Ezkerreko eskuarekin keinuak egiten ditu.

Maskara hau zergatik eraiki zen ezin da jakin. Mendebaldeko bizitzaren satira gisa interpretatu daiteke. Baliteke super-egiturak herria lehen aldiz telefono sarera konektatu zeneko okasioa gogora ekartzea.

Máscara Gelede con un hombre hablando por teléfono

Madera, tela, hilo; alto 46 cm.

El hombre puede mover ambas manos y el codo, y girar algo la cabeza y el torso hacia la derecha (a la altura de sus caderas), de forma que puede llevarse el teléfono al oído y gesticular con la mano izquierda.

El motivo concreto por el que se construyó esta máscara ya no puede ser determinado. Puede interpretarse simplemente como una sátira de la vida occidental. También se sugiere que la superestructura podría marcar la ocasión en la que el pueblo fue conectado por primera vez a la red telefónica.



Gelede maskara, gizonezko bat zutik

Egurra, oihala, haria; 54 cm garai.

Maskara honek begi gorrixkadun gizon baten aurpegia dauka. Txotxongiloak galtza luzez eta berokiaz jantzitako gizon bat irudikatzen du. Belarridun Yoruba txapela darama, gorputzaren egurrezko pieza berean tailatua eta egurrezko zapatak. Txotxongiloa aurrerantz makurtu daiteke eta bi besoak batera jaso ditzake.

Hurrengo maskararen bikotea da, biak ala biak pertsona berak egin zituen eta.

Gelede maskara, emakumezko bat zutik

Egurra, oihala, haria; 46 cm garai.

Maskara honek aurpegi maskulino beltzarana dauka, bizar txiki batekin eta begi gorrituekin. Txotxongiloa zutik dagoen emakume bat da, bi besoak batera jaso ditzakeena. Aurreko maskararen bikotea da.

Máscara Gelede con hombre de pie

Madera, tela, hilo; alto 54 cm.

Esta máscara tiene la cara de un hombre con ojos rojizos. La marioneta representa a un hombre vestido con pantalones largos y un abrigo. Lleva un sombrero Yoruba con orejeras, tallado de la misma pieza de madera que el cuerpo, y zapatos de madera. La marioneta puede inclinarse hacia delante y alzar ambos brazos a la vez.

Forma pareja con la siguiente máscara, ya que ambas fueron hechas por la misma persona.

Máscara gelede con mujer de pie

Madera, tela, hilo; alto 46 cm.

Esta máscara tiene una cara masculina morena con una pequeña barba y ojos enrojecidos. La marioneta representa a una mujer de pie que puede levantar sus dos brazos a la vez. Forma pareja con la máscara anterior.



Gelede maskara figura handi batekin eta bi txikirekin

Egurra, oihala, haria, pigmentua; 44 cm garai.

Maskara honetan gizon bat ageri da zutik eta bi figura txiki eserita bere aldaketatik irteten den disko batean. Txotxongilo guztiek besoak mugitu ditzakete.

Máscara Gelede con una figura grande y dos pequeñas

Madera, tela, hilo, pigmento; alto 44 cm.

Esta máscara muestra a un hombre de pie con dos pequeñas figuras sentadas en un disco de madera que surge de sus caderas. Todas las marionetas pueden mover los brazos.



Bi Gelede maskara bi dandyrekin

Bi maskara hauek nahiko barregarriak dira dekadentzia afeminatua salatzen baitute, mendebaldeko eraginak sortutako gaitz soziala. Dena dela, satira politikoa ere izan daitezke. Bi txotxongiloak izar formako plataforma baten gainean eserita daude, ziurrenik Benin-eko alderdi politikoren bati erreferentzia eginez.

Gelede maskara, dandy bat eserita

Egurra, oihala, gomazko bandak, haria; 50.5 cm garai.

Azpiegiturak beheko matraila mugi dezake eta hortz artean zulo bat ikus daiteke une horretan (kasu honetan txotxongiloak “akats” bera du). Txotxongiloa sukaldeko aulki batean eserita dago. Artikulazioak ditu sorbaldetan, hala besoak altxa ditzake alboetatik; ukalondoetan naiz eskumuturretan ere bai eta zangoak gurutzatu ditzake. Betazal mugikorrak are gehiago nabarmentzen dira ertzetan betileak iradokitzen dituzten ebakidurak dituztelako. Txotxongiloaren arroparen koloreak eta marrazkiek aberastasuna eta dekadentzia islatzen dituzte. Txotxongiloaren azpian dagoen tailak bost puntako izar forma dauka eta metalezko tatxetekin dekoratuta dago (bat falta du).

Gelede maskara, dandy bat ezpata gainean

Egurra, oihala, gomazko bandak, haria; 66.5 cm garai.

Hemen ere, maskarak bi ezpainak apur bat bananduta dauzka. Hortzak margo zuriz markatuta daude. Maskara honen gainean ere bost puntako izar bat dago, arestian esan bezala baliteke alderdi politikoren bati erreferentzia egitea. Izarraren gainetik taulatxo bertikal luze samar bat irteten da eta badirudi txotxongiloa hari iltzatuta dagoela. Tronu garai hori hiruko formako sekzioan amaitzen da eta beraz ezpata bat dela dirudi. Txotxongiloak libreki mugitu ditzake besoa eta zangoak. Begiak itxi ditzake edo bakarra itxiz keinu egin, disko formako betazal astunei esker. Gizonak urre koloreko alkandora bat, marrazkidun oihalezko galtza berdeak eta egurrezko zapatak daramatza soinean, aberastasuna eta dekadentzia islatuz.

Dos máscaras Gelede con dos dandys

Estas dos máscaras provocan la risa ya que denuncian la decadencia afeminada, un mal social, debida a la influencia occidental. Pero también podrían hacer referencia a la sátira política. Ambas marionetas están sentadas sobre una plataforma en forma de estrella, probablemente una referencia al emblema de algún partido político en Benin.

Máscara Gelede con un dandy sentado

Madera, tela, bandas de goma, hilo; alto 50.5 cm.

La subestructura puede mover la mandíbula de abajo para revelar un hueco entre sus dientes (en este caso la marioneta también tiene el mismo “defecto”). La marioneta está sentada en una sila de cocina. Tiene articulaciones en los hombros, que le permiten alzar los brazos por el costado, en los codos y muñecas y puede cruzar las piernas. Los párpados móviles están más enfatizados si cabe con unas incisiones en los bordes que sugieren pestañas. El color y los dibujos de la ropa de la marioneta indican riqueza pero también decadencia. La tabla sobre la que está sentada la marioneta está tallada en forma de estrella de cinco puntas decorada con tachuelas metálicas (una de ellas falta).

Máscara Gelede con un dandy sobre una espada

Madera, tela, bandas de goma, hilo; alto 66.5 cm.

Aquí también, la máscara tiene los labios un poco separados. Los dientes están marcados con pintura blanca. Encima de la máscara también hay una estrella de cinco puntas que, como se ha dicho anteriormente, puede hacer referencia a algún partido político. De encima de la estrella surge una tablilla vertical bastante larga, a la que parece que la marioneta está clavada. Este trono en alto, que termina en una sección triangular y, por tanto, sugiere una espada, permite a la marioneta mover los brazos y las piernas libremente. Puede cerrar los ojos o guiñar con sus pesados párpados en forma de disco. El hombre está vestido con una camisa de color dorado, pantalones verdes de tela con dibujos y zapatos de madera, lo cual denota riqueza y decadencia.



Komisarioa:
Comisario: **Damiet Van Dalsum**

Erakusketaren diseinua:
Diseño exposición: **Elise Wagemans**

Argazkiak:
Fotografía: **Peter Bersch**

Maskarak:
Máscaras: **Ursela Voorhuis**

Diseinua eta Koordinazioa:
Diseño y Coordinación: **Miguel Arreche**

Erakusketaren arduraduna:
Responsable exposición: **María San Sebastián Poch**

Muntaia eta argiztapena:
Montaje e iluminación: **Daniel Ayala, Jesús Artetxe, Toni Alcaide**

topic.